

Hegoaren Plan Estrategikoa 2019-2025



Aurkibidea

Sarrera	3
1. Testuinguruaren diagnostikoa: gako batzuk	4
1.1. Joera globalen sintesia	4
1.2. Lankidetzaren testuingurua Espainiako Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan	4
1.3. Unibertsitatea, gizarte eraldaketarako eragilea	5
2. Hegoa testuinguru aldaketen aurrean: proposamen estrategikoaren oinarria	6
3. Misioa, ikuspegia eta balioak	9
3.1. Misioa	9
3.2. Ikuspegia	9
3.3. Balioak	10
4. Helburu estrategikoak	11
1. helburu estrategikoa	11
2. helburu estrategikoa	13
3. helburu estrategikoa	15
4. helburu estrategikoa	16
5. helburu estrategikoa	18
6. helburu estrategikoa	20
7. helburu estrategikoa	21

Sarrera

Plan Estrategiko hau da Hegoak 2019-2025 urteetarako duen ibilbide orria. Plana sortu da hainbat espaziotan egin den deliberazio prozesu parte hartzaile luze batetik, eta institutuko taldeek, arloek eta pertsonak beren gogoetak eta ekarpenak egin dituzte espazio horietan. Prozesuari amaiera emateko, Zuzendaritza Kontseiluak eztabaidatu eta bere ekarpenak egin zituen, kontseilu hori izanik azkenean dokumentua onartu zuena.

Plana kokatzen da egungo testuinguruan izandako aldaketen analisi labur batean, aldaketak bai maila globalean (garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren alorrean) bai gure gizartean eta unibertsitatean.

Era berean, dokumentu honen abiapuntua da Hegoaren historia, hiru hamarkada luzez metatu dugun ondare ukigarria eta ukiezina, eta oinarritzen da erakundearen misioan, ikuspegian eta balioetan, bai eta pentsamendu kritikoa eraikitzeke apustuan eta gizarte eraldaketarako proposamenetan ere. Institutu misto izateak ematen digun izaera konplexu eta emankorretik abiatuta, dokumentu honen xedea da unibertsitatea eta gizarte elkartzea, arreta jarriz pentsamenduan, politika publikoetan eta nazioarteko lankidetzan, lan eginez horretarako hainbat herrialdeetako unibertsitateekin, erakundeekin eta gizarte erakundeekin batera.

Dena dela, ezer baldin bada, etorkizunari begiratzen dion dokumentu bat da, zehazten duena zer egin dezakegun eta zer egin nahi dugun datozen urteetan. Alde horretatik, proposamen anbiziotsu bat da, bide bat finkatzen duena eta, horrez gain, bide hori egitera akuilatzen gaituena. Aldi berean, gida errealista bat da, gure ahaleginak bideratu nahi dituen helburu bideragarrietarantz. Esperientzia zabala dugun arloak finkatu nahi ditu (ikerketak, prestakuntza, aholkularitza eta argitalpenak) eta beste batzuk indartu (komunikazioa eta sare sozialen erabilera). Eta hori guztia erronka instituzionalei aurre eginez; hala nola aitortza handiagoa unibertsitate ingurunean, finantzaketaren dibertsifikazioa, teknologia berrien erabilera edo belaunaldi txandaketa.

Ibilbide orri honek bidea markatu besterik ez du egiten. Ibilbidean aurrera egitea lan kolektiboa izango da, eta guztion ahalegina beharko du.

Karlos Pérez de Armiño
Hegoako zuzendaria

1. Testuinguruaren diagnostikoa: gako batzuk

1.1. Joera globalen sintesia

Nazioarteko testuinguruaren azken hamarkadetako bilakaeraren ondorioz, gero eta aldakorragoa eta konplexuagoa den garai batean bizi gara, krisi sistemiko gisa azter daitekeena: krisi ekonomikoa, ekologikoa, demokratikoa, elikadura krisia, zaintzen krisia, epistemikoa... Iraganeko konpondu gabeko arazoei (pobrezia, gosea, genero desberdintasunak...), arazo berriak gehitu zaizkie, eragina dutenak lpar nahiz Hegoan (klima aldaketa, gatazka armatu eta bortizkeria modu berriak, migrazioak eta asilo politiken krisia...).

Nazioarteko agendan, ideologia eta politika kontserbadoreen gorakada dela-eta, segurtasunaren ikuspegi tradizional bat gailendu da krisiari erantzuteko orduan, giza eskubideen eta askatasunen kalterako. Atzera egiteko antzeko saiakerak egin dira emakumeen eskubideen alorrean, eta bere horretan diraute gizarte guztietan desberdintasunaren muturreko adierazpenek; hala nola indarkeria sexistak.

Arazo horiek etenik ez izateak eta haien konplexutasunak ezbaian jarri dute egungo garapen ereduak, bai eta, alor batzuetan, garapenaren kontzeptua bera ere. Era berean, agerian gelditu da nazioarteko lankidetzak desafio globalei erantzuteko duen gaitasun mugatua, eta hainbat faktorek eragin dute hor: besteak beste, lankidetzaren funtsak txikitzeak, haren teknifikazio eta despolitizazio gero eta handiagoak, helburuen formulazio desegokiak eta aktoreen jarduera gorabeheratsuak. Gainera, nazioarteko sistema humanitarioaren krisiak, premia gero eta handiagoei erantzuteko ezgaitasunetik sortua, eztabaida biziak sortu ditu sistemak behar lituzkeen aldaketen eta laguntza hobetzearen inguruan; adibidez, Istanbulgo Munduko Gailur Humanitarioan (2016).

Nazioarteko lankidetzaren indarrean dagoen erreferentzia esparrua *Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda* da, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 2015ean formulatua. Guztira, 17 helburu dira, eta helburu horiei dagozkien eta haietatik bereizi ezin daitezkeen 169 xede, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetan. Tresna integral eta unibertsala izateko asmoz sortu bada ere, 2030 Agendaren eraikuntzak agerian utzi ditu nazioarteko botere asimetriak, eta horixe erakusten dute nazioarteko gizarte erakundearen sare eta plataforma askok haren gomendioak txertatzeko izan dituzten zailtasunek. Gainera, Agendak alde batera utzi ditu gai sistemikoak izenekoak: hau da, finantza merkatuen erregulazioa, nazioarteko mekanismo fiskalak, negozio mekanismoen berrorientazioa, desarautze komertziala edo kanpo zorrak sortutako problematikaren ebaluazio eta kudeaketa multilateralak. Nolanahi ere den, Agendari egin ahal zaizkion kritikak gorabehera, nabarmentzekoa da ibilbide orri bat zehaztu duela datozen urteetarako mundu mailan, eta hainbat elementu interesgarri dituela. Agendak berekin dakar konpromiso komun eta unibertsal bat, herrialde bakoitzak bere erronka espezifikoak dituelako bere garapen jasangarriaren bilaketan, lortu beharrekoa, ez bakarrik nazioarteko lankidetzaren bidez, baita politika publikoen bidez ere, Garapenerako Politiken Koherentziaren (GPK) ikuspegitik.

1.2. Lankidetzaren testuingurua Espainiako Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan

Espainiako Estatuan, krisi ekonomikoari aurre egiteko austeritate politiken ondorioetako bat izan da funtsak murriztea nazioarteko lankidetzaren politiketan, eta haren tresna batzuk desagertzea eta GGKE sektorearen ahultzea eragin du horrek. Azken urteetan,

adierazle makroekonomikoek hobera egin badute ere, Estatuko erakundeek ez dute apusturik egin lankidetzaren politikak berreskuratzearen alde; bai, ordea, autonomia erkidego batzuek.

Euskal Autonomia Erkidegoak murriztu egin ditu ere nazioarteko lankidetzarako baliabideak, lankidetzaren hori politika publiko gisa mantendu bada ere. Urte hauetan, euskal erakundeak saiatu dira krisi aurreko aurrekontuak pixkanaka berreskuratzeko, nahiz eta oraindik urrun dauden Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legeak ezarritako % 0,7tik.

Euskal lankidetzak hainbat eztabaida sustatu ditu bere barnean, lan ikuspegiari, agenteei eta tresnei buruz. Emaizta gisa, Eusko Jaurlaritzak argitaratu du *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua*; GGKEen Koordinakundeak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) apustu egin dute Ipar-Hego ikuspegitik ikuspegi lokal-global baterantz igarotzeko trantsizioaren alde; azkenik, foru aldundiek beren esparru estrategikoak landu dituzte, hainbat ikuspegitik (ohikoak ez diren agenteak lankidetzaren sartzeko saiakerak, sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia...).

GLEAren kasu zehatzean, lanean jarraitzen du estrategiak eta tresnak lantzeko eta berrikusteko prozesuan, eta horren emaitza dira (*H)abian 2030. Gizarte eraldaketarako hezkuntza estrategia eta Ekintza Humanitarioko Estrategia (2018-2023)*), lehentasuna ematen diona gatazka eremuetan lan egiteari. Bi-biak bat datoz Hegoan martxan dauden lan lerroekin.

1.3. Unibertsitatea, gizarte eraldaketarako eragilea

Hezkuntza, goi-mailakoa barne, funtsezkoa da giza garapenean. Alde horretatik, unibertsitateak eginkizun bat du gizarte eraldaketako agente gisa. Hala ere, nazioartean -eta gure inguruan ere bai- indarrean dauden joerek ezbaian jartzen dute eginkizun hori.

Egungo unibertsitatea kokatzen da Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan (Boloniako plana), eta esparru horrek, tituluen homologazioa, nazioarteko mugikortasuna edo irakaskuntza-ikaskuntza modu berriak bezalako alderdi interesgarriekin batera, berekin ekarri du ere bikaintasun irizpide batzuk onartzea. Irizpide horiek eskakizun gero eta handiagoak ezartzen dizkiete irakasle-ikertzaileei, eta merkatu eskaerei men egiten dien ezagutza saritzen dute, berdintasunean eta gizarte justizian oinarritutako pentsamendu kritikoa sortzera bideratutako prestakuntza eta ikerketa baino gehiago.

Testuinguru honetan, unibertsitateko zenbait sektorek planteatu dute erakunde honek bere gizarte eginkizuna berreskuratzeko beharra. Martxan jarri duen eraberritze metodologiko hutsetik harago, indartu egin beharko luke ezagutza kritikoa sortzeko duen eginkizuna, ikerketaren bidez eta hezkuntza kritikoa agente gisa, bere irakaskuntza funtzioari dagokionez.

Bestetik, Garapenera buruzko ikasketek zailtasunak izaten jarraitzen dute unibertsitatean; adibidez, haien diziplina anitzeko izaerak talka egiten du jakintza arloetan oinarritutako egiturarekin, eta hiperespezializazioarako joera nagusitzen da. Gainera, kontuan izanik gure lanera irakasle-ikertzaile eta ikasle asko hurbil litezkeela, tresna eta metodologia berriak erabili behar ditugu, bat egiteko talde horien kezka eta sentsibilitate berriekin, motibatutako dituzten proposamenak sortze aldera.

2. Hegoa testuinguru aldaketan aurrean: proposamen estrategikoaren oinarria

Bere ibilbide historikoari esker, gaur egun Hegoak aitortza zabala du garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren alorrean, EAEn, Estatuan eta baita nazioartean ere (Latinoamerikan nagusiki).

Giza garapenari eta lankidetzari buruzko dokumentazio, prestakuntza, ikerketa, aholkularitza eta hezkuntza kritikoari begira Hegoak sortu dituen egiturak aitzindariak izan dira Espainiako Estatuan –Dokumentazio Zentroa, Masterrak, Doktorego Programa...–, eta lagungarriak izan dira ere ikertzaileen lanerako eta nazioarteko lankidetzan profesionalki edo boluntario gisa (GGKEetan, gizarte mugimenduetan edo erakunde publikoetan) aritu diren promozio ugari trebatzeko.

Gainera, ikuspegi, eztabaida eta estrategia berriak proposatzeko gaitasunak, gogoeta eta pentsamendu kritikotik, hobetu egin du gizarte eraldaketarako lankidetzaren eta hezkuntzaren kalitatea, eta ekarpen adierazgarriak egin dira alor zehatzetan: hala nola tokiko giza garapenean, giza segurtasunean, emakumeen eskubideetan, globalizazioan, etab.

Hogeita hamar urtetik gorako ibilbidearen ondoren, Hegoaren lan aitzindari hori beste eragile batzuekin partekatzen da orain. Eragile horiek gure lanari esker hazi dira neurri batean, eta haien esperientziatik abiatuta sendotu dira ondoren. Horrek kokatzen gaitu eskaera zorrotzagoak dituen ingurune batean, jarduera eremu bera partekatzen duten eragile gehiagorekin batera, eta bultzatzen gaitu testuinguru berrian ditugun indarguneak eta ahulguneak aztertzea, zer estrategia behar ditugun, hartara egokitu eta zerbitzu hobea emateko.

Zalantzarik gabe, euskal unibertsitate publikoaren institutu izatea da gure faktore bereizgarrietako bat. UPV/EHUK gero eta balio handiagoa ematen dio Hegoak Garapenari buruzko ikasketen alorrean duen zereginari, neurri batean gure eskaintza akademikoaren arrakastari (gure masterren eskaera handia) eta Doktorego Programan matrikulatutako tesiak dituzten pertsona kopuruari esker. Posizio horretara heldu gara ahalegin handi baten ondoren, eta ezinbestekoa da posizio hori mantentzea eta sendotzea, bai eta urratsak egitea ere unibertsitate institutuen eta egiten dugun diziplinarteko lanaren aitortzan.

Ikerketaren alorrean, gai gara pentsamendu kritikoa sortzeko hainbat lerrotan, gaiei helduz ikuspegi ez-konbentzionaletatik. Hainbat faktorek laguntzen digute eragileen (GGKEak, gizarte mugimenduak, erakunde publikoak) eskaerei erantzuten: ikertaldeak, eraikuntza kolektiborako eta ikerketa karrera hasten duten pertsonen laguntzeko espazio gisa; diziplinartekotasuna; eta lantzen diren metodologiaren aniztasuna (akademian hain hedatuta ez dauden metodologia batzuk barne; hala nola ikerketa feministaren metodologiak, herri hezkuntza edo ikerketa-ekintza parte hartzailea). Hala eta guztiz ere, gure ikerketa lanak hobetzeko tarteak du oraindik esparru batzuetan; besteak beste, gizarte zientzietako metodologietan behar dugun trebakuntzan, nazioarteko beste zentro batzuekiko sare lanean edo gure lanen zati bat inpaktu aldizkarietan argitaratzeko xedean.

Bestetik, desafio bikoitz bat dugu: gure ohiko ikerlerroak sendotzea eta, aldi berean, testuinguru berrian gero eta garrantzia handiagoa duten gaiak sartzea. Adibidez, ingurumen jasangarritasuna, giza garapenaren ezinbesteko dimentsioa, edo migrazioen, asiloaren eta babesaren gaiak, azken aldian pisu handia hartu dutenak.

Edonola ere, pentsamendu kritikoa sortzeko dugun gaitasunaren mende dago garapeneko eta nazioarteko lankidetzako politika publikoetan dugun eragina. Horregatik, ikerketa sustatzea, bai eta sortutako ezagutza partekatzeko moduak ere (prestakuntzaren, komunikazioaren, aholkularitzaren, esperientzien aplikazioaren eta sistematizazioaren, eta argitalpenen bidez), estrategia osagarriak eta elkarren mendeak dira gure misio instituzionala garatzeko. Hori ez da oztopo lana ikuspegi desberdinetatik egiteko, eta azken urteetan egin dugun lanean, Hegoako pertsonak eta taldeek hainbat ikuspegi izan dituzte lankidetzari, haren lehentasunei, agentei eta lehentasunezko aliantzei dagokienez. Ikuspegi aniztasun hori zaindu beharreko balio garrantzitsu bat da, eta laguntzen digu eztabaidak sortzeko eta ideiak proposatzeko gure eginkizunean.

Gure lanaren nazioartekotzean eta kanpo proiektzioan aurrera egin ahala, inpaktu eta efektu biderkatzaile handiagoa izango du, eta horregatik behar dugu aliantza politika bat, agente askotarikoekin. Hegoa harremanetan dago Latinoamerikako unibertsitate eta erakundeekin, eta harreman horiek hitzarmenetan eta baterako programa eta proiektuetan gauzatu dira kasu batzuetan. Latinoamerikarekiko lotura horiek ondare bat dira, eta lagun diezagukete Europako beste zentro batzuekin harremanak indartzen, bai eta europar ikerketa sareetan dugun partaidetza areagotzen ere. Bestetik, elkarlanean dihardugu hainbat gizarte erakunde, sare eta mugimendurekin. Elikatzen gaituzte eta guk ere gure ekarpena egin nahi diegu. Espazio horien ugaritasuna dela-eta, mapa bat landu behar dugu, gure aliantzei irizpide estrategikoekin erantzuteko, Institutuaren osotasunean pentsatuz.

Hegoa egitasmoa pertsona askoren lanean oinarritzen da. Haien esperientzia da gure indarguneetako bat, eta oinarri sendo bat ematen digu erakunde gisa garatzeko. Garapen horrek, gaur egun, esperientziaz gain, berrikuntzarako gaitasunak aktiboki indartzea eskatzen du, eskaera berriei eta etengabeko prestakuntzari erantzuteko. Halaber, artikulazio handiago bat behar da, talde teknikoaren eta irakasle-ikertzaileen zereginen artean, abantaila batekin: hots, hainbat sektoretan garatutako proiektuek eta landa lanak sor ditzakete inpaktu soziala eta argitalpen akademikoak.

Gure diagnostikoan, gainera, garrantzitsutzat jo dugu belaunaldi txandaketa, irakasle-ikertzaileen, elkarteak kontratatutako langileen eta, oro har, gure jardueretan boluntario edo parte hartzaile gisa aritu daitezkeen pertsonen artean. Alde horretatik, aukera handiak ditugu gure irakasle-ikertzaileen graduko ikasleak erakartzeko, bai eta gure masterretako eta doktorego programako ikasleak ere. Izan ere, gero eta gehiago dira Hegoan parte hartu nahi duten gazteen eskaerak (boluntariora, praktikak, beka, ikerketa egonaldiak, etab.), eta beharrezkoa da hori guztia bideratzea.

Feminismoa(k) da Hegoaren ikerketek, argitalpenek eta proiektuek euskal lankidetzan sustatu duten ikuspegietako bat. Era berean, barne mailan, erabaki instituzional gisa, apustu egin du genero ekitatearen aldeko antolakuntza aldaketaren alde. Hegoaren konpromiso feminista, bere kontraesan, gorabehera eta erresistentzia guztiak, har daiteke, alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko posizionamendutzat; bestetik, aukeratzat, gure jardunbideei buruz gogoeta egiteko, besteen legimitatea aitortzeko, kohesioa indartzeko eta botereari dagokionez bidezko harremanak eraikitzeko.

Amaitzeko, jasagarritasun ekonomikoari dagokionez, krisialdian egin ditugun doikuntzen ondoren, emaitza positiboa lortu dugu azken bi ekitaldietan, eta erakunde publikoentzako aholku zerbitzuak dira berezko funtsen iturri nagusia. Nolanahi ere, Estatuko lankidetzan izan diren murrizketa handien ondoren, euskal GGKE asko bezala, finantzaile bakar baten mende gaude neurri handi batean (GLEA), eta egonkortasun eskasa dugu diru sarreretan, epe laburreko tresnekin batik bat lan egiten dugunez (urtebeteko edo biko kontratuak eta proiektuak). Beraz, aurrera begira, helburuetako bat izango da epe ertaineko finantzaketa iturri eta tresna berriak bilatzea.

3. Misioa, ikuspegia eta balioak

3.1. Misioa

Hegoaren misioa da:

Gizarte aldaketa eragitea, pentsamendu kritikotik abiatuta, giza garapenerako eta lankidetzaz eraldatzailerako esparru teoriko, prozesu eta estrategia alternatiboen eraikuntzaren, proposamenen eta aplikazioaren bitartez, bizitzaren jasangarritasuna helburu.

3.2. Ikuspegia

Datozen urteetan, aurrera egin nahi dugu Hegoa eraikitzeko bidean, ezaugarri hauengatik aitortua izan dadin:



- *Erresistentzian oinarritutako pentsamendua sortzea, pentsamendu kritikoa eta proposatzailea.* Erresistentzia, giza eskubideetan eta pentsamendu bakar eta akritikoko dinamiketan atzera egiteko arriskuaren aurrean; eta bultzada, aldaketa proposamenei eusteko.
- *Beste batzuekin batera eragitea, gizartea aldatu eta eraldatzeko, ezagutza jarritz gizarte borroken zerbitzura, aliantzan erakunde akademikoekin, GGKEekin, gizarte mugimenduekin eta konprometitutako erakunde publikoekin.*
- *Garrantzia izatea unibertsitatean eta gizartean, bai eta akademiaren eta gizarte eragileen artean loturak egiteko gaitasuna ere.* Unibertsitatean aldaketa eragile izatea; gaitasuna izanik ikuspegi kritikoekin konprometitutako irakasle-ikertzaileak erakartzeko; unibertsitatea gizarte zibilera hurbiltzeagatik aitortua, ekoizpen akademikoa gizartearen prozesu eta eskaeretara egokituta.

- *Antolatzeko indarra, aniztasuna errazten duen kohesio integratzailearekin.* Egitura malgu eta eraginkor batekin, elkartzea eta desadostasunak barneratzea erraztuko duena, identitate eta ikuspegi partekatu batetik.
- *Konpromiso feminista, barruko zein kanpoko praktketan, partekatutako lidergoen eredu baterako trantsizioa barne, eredu horretan zaintzak antolakuntza kulturaren parte izanik.* Gure konpromiso feminista txertatzen da jarduera arlo guztietan eta gure antolakuntza kulturean, eta ezbaian jartzen ditu desberdintasunak erreproduzitzen dituzten botere moduak. Lidergo partekatuak hartzen ditugu erantzunkidetasun ariketatzat, sustatzen dituen horizontaltasuna, partaidetza eta eraikuntza kolektibo moduak, bizikidetzaren esparru baten barruan, non pertsonak eta erakundeak zaintzen duten eta zainduak diren.

3.3. Balioak

Hegoa osatzen dugun pertsonok balio hauek partekatzen ditugu:



- *Justizia soziala:* giza eskubideak dira erreferentzia esparrua, gure lanaren lehentasunak eta pautak zehazteko.
- *Elkartasuna:* Hegoaren jarduerak gizarte, pertsona eta kolektibo zaugarrienen interesak lehentasunez aldezteko konpromisoa.
- *Emakumeen eta gizonen arteko ekitatea:* emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egiturazko baldintzak eta botere harremanak aldatzeko konpromisoa.
- *Aniztasuna:* pentsamendu desberdinak onartzea, errespetatzea, aitortzea eta sustatzea. Bizikidetzaren aniztasunean.

4. Helburu estrategikoak

1. helburu estrategikoa:

Gizarte eraldaketa helburu, ikertzeko eta pentsamendu kritikoa sortzeko gaitasunak indartzea Hegoan, honako hauen bidez:

- prestakuntza metodologikoa
- zeharkakotasuna eta diziplinartekotasuna sustatzea
- martxan dauden lerro tematikoetan sakontzea
- gai berriak sartzea

Lehentasunezko ekintzak 1. helburu estrategikoan:

PRESTAKUNTZA METODOLOGIKOA

- Hegoan egiten den ikerketaren mapatzea/inbentarioa egitea, bai eta erabiltzen ari den metodologia motarena ere.
- Esperientzien eta ezagutzen trukea sustatzea ikerketa tresnen eta metodologiaren alorrean, gizarte ikerketako metodologiak barne, aukera emango dutenak inplikatzeko bai ikertzaileak bai ikerketaren subjektuak prozesu parte-hartzaile eta sortzaile batean, haien errealitatearen analisi kokatu, kritiko eta eraldatzaile bat proposatuta.
 - ↻ Metodologia kualitatibo eta kuantitatibo espezifikoak.
 - ↻ Ikerketa-ekintza-partaidetza (IEP) eta metodologia parte hartzaile komunitarioak.
 - ↻ Ikerketa feministako metodologiak.
 - ↻ Garapenaren alternatibetara lotutako metodologiak.
 - ↻ Jasangarritasun ekologikoaren alorreko metodologiak.
 - ↻ Sistematizazioa.

ZEHARKAKOTASUNA ETA DIZIPLINARTEKOTASUNA SUSTATZEA

- Trukea erraztea ikertaldeetako kideen artean, zeharkako edukiei buruzko tailer tematikoen eta eztabaiden bitartez.
 - ↻ Eztabaida epistemologikoak, ezagutza sortzeko moduei, haien helburuari eta ikerketako objektu edo subjektuekiko harreman moduari buruzkoak (ikuspegiaren arabera).
 - ↻ Garapenari, postgarapenari eta garapenaren alternatibei buruzko eztabaida orokorrak, bai eta nazioarteko lankidetzan dituzten inplikazioei buruzkoak ere, ikuspegi zabal, plural eta diziplinarteko batetik.
 - ↻ Ikuspegi intersektionalak, pertsonen eta talde sozialen desberdintasun baldintzei eta harremanei buruzkoak.

MARTXAN DAUDEN LERRO TEMATIKOAK

- Lerro tematiko aktiboetan sakontzea, ekintza multzo askotariko baten bidez: ikerketa proiektu espezifikoak; ikerketa aplikatua landa prestakuntzarekin eta bikaintasunarekin artikulatuko duten programak; erakunde publikoentzako aholkularitza; master amaierako lanak (MAL); doktorego tesiak; etab.

Honako hauek dira martxan dauden ikerlerroak:

- ↳ Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak: tokiko giza garapena, postgarapena, ondo bizitzea eta garapenerako alternatibak
- ↳ Ekonomia sozial eta solidarioa
- ↳ Bizitzaren jasangarritasuna eta ekonomia feminista
- ↳ Garapenerako politiken eta nazioarteko lankidetzaren koherentzia
- ↳ Gatazkak, bakea eta erresistentzia ez-bortitza
- ↳ Feminismoa eta gatazkak
- ↳ Giza eskubideak, justizia trantsizionala eta memoria historikoa
- ↳ Hezkuntza kritikoa eta askatzailea
- ↳ Elikadura subiranotasuna

TEMATIKA BERRIAK

- Sozialki garrantzitsuak diren gaien tratamendua eta gai horien inguruan irakasle-ikertzaileen artikulazioa erraztuko dituzten baldintzak sortzea: irakasle adituak identifikatuz gure graduondokoetarako eta doktorego programarako; MAL eta tesiak sustatuz gai horietan; eta horiekin lotutako jarduerak sartuz gure proiektuetan.

Honako hauek dira identifikatutako gaietako batzuk:

- ↳ Jasangarritasun ekologikoa, ingurumen justizia, gatazka sozioekologikoak eta ekonomia ekologikoa
- ↳ Migrazioak.

2. helburu estrategikoa:

Gure posizioa indartzea UPV/EHU

Lehentasunezko ekintzak 2. helburu estrategikoan:

- Bi master ofizialek eta berezko titulu batek osatutako egungo eskaintza mantentzea eta sendotzea:
 - ↳ Prestakuntza eskaintza eguneratu bat mantentzea, bai edukietan bai metodologia eta baliabide pedagogikoetan, Dokumentazio Zentroaren (CDOC) baliabideetan oinarrituta.
 - ↳ **EUSKARA:** bi master ofizialen zati komunaren euskarazko irakaskuntza eskaintza sendotzea.
 - ↳ Gure graduondokoen eskaera mantentzea (aurreinskripzio eta matrikula kopurua masterretan eta doktorego programan).
 - ↳ Masterren kanpo ebaluazioa egitea eta hobetzeko gomendioak aplikatzea.
 - ↳ Irakasle eta ikasle trukea sustatzea hitzarmenak ditugun unibertsitateekin.
- Garapenari buruzko Ikasketen Doktorego Programa sendotzea bere arloko erreferente gisa, gure inguruan nahiz nazioartean.
 - ↳ Atxikitako irakasle-ikertzaile kopurua areagotzea, hainbat eremutakoak, gai askotarikoei buruzko tesi gehiago zuzen ditzaten, kalitate ratioak eta Bikaintasun Aipamena mantenduta.
 - ↳ Doktoregaien eta Hegoaren ikerlerroen eta jardueren arteko lotura estutzeko bideak sortzea.
- Atxikitako irakasle-ikertzaileen aitortza akademikoa areagotzeko prozesuak erraztea, ohiko adierazleen arabera (seiurtekoen ratioa, irakaskuntza ekintzari lotutako akreditazioak, argitalpenak inpaktuekin, etab.), haien irakaskuntza gaitasunaren ebaluazio emaitzak hobetzeko, ikerketa proiektu lehiakorretara aurkezteko, doktorego tesiak zuzentzeko, etab.
 - ↳ Gure eremuan indexatutako aldizkarietan artikuluak argitaratzeari buruzko mintegiak.
 - ↳ Lehiaketa deialdietan proiektuak prestatzeari buruzko mintegiak (MICINN...).
 - ↳ Irakaskuntza praktika berriei buruzko mintegiak.
- Hegoaren Dokumentazio Zentroa (CDOC) sendotzea garapenerako baliabideetan eta nazioarteko lankidetzan espezializatutako erreferentzia zentro gisa, UPV/EHUren nazioarteko irudia proiektatzen laguntzen duena.
 - ↳ CDOCren informazioaren eta funtsen zabalkundea hobetzea, IKTen bidez.
 - ↳ CDOCren ezagutza eta erabilera areagotzea UPV/EHUren hainbat arlotako irakasle-ikertzaileen eta graduoko eta graduondoko ikasleen artean.
 - ↳ Informazio espezializatutako baliabideen eskaera adierazleak mantentzea.

- Hegoako irakasle-ikertzaileen presentzia handitzea ikertaldeetan eta ikerlerroetan, eta, Institutuaren barruan, aitortza ofiziala izango duten ikertalde berrien sorrera laguntzea.
 - ↳ Prestakuntzan dauden ikertzaileen kontratu kopurua areagotzea (doktorego aurreko bekak), Hegoari atxikiak, eta martxan dauden ikertalde edo lerroetan sar daitezten sustatzea.
- Eragileekin batera, unibertsitatea gizarte mugimenduekin eta erakundeekin lotuko duten proiektuak diseinatzea eta betearaztea, unibertsitatearen hezkuntza eredueta eragingo duten egitasmoak, hezkuntza kritikoaren eta askatzailearen ikuspegitik.
- **SAREAK ETA ALIANTZAK:** barne aliantzak sortzea UPV/EHUren barruan, eta babesa ematea unibertsitate publiko baten eraikuntza (gizarte eraldaketarako eragile gisa) eta publikotasunaren defentsa (joera merkantilizatzaileen aurrean) sustatuko dituzten egitasmoei.
 - ↳ Graduondoko prestakuntzaren (MAL tutoretza, tesien zuzendaritza...) eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren eta komunikazioaren arloetan, harremanak sendotzea Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakasle-ikertzaileekin.
 - ↳ Harremana sendotzea Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin eta haren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoarekin.
- **KOMUNIKAZIOA:** UPV/EHU interes taldetzat hartzea Hegoaren Komunikazio Planean. Gure lana sozializatzea unibertsitatean eta aztergai ditugun errealitate sozial, ekonomiko eta politikoen inguruko sentsibilizazioa sustatzea (batik bat irakasleen eta ikasleen artean), bai gure ikerlerroetatik bai tokian tokiko gure lankidetzaren proiektuetan.
- **EUSKARA:** euskara indartzea jendearentzako arretan, bai prestakuntzari, bai Dokumentazio Zentroari dagokionez.

3. helburu estrategikoa:

Garapenerako politika publikoetan eta nazioarteko lankidetzan eragitea

Lehentasunezko ekintzak 3. helburu estrategikoan:

- Garapenari eta nazioarteko lankidetzari buruzko pentsamendu kritikoen inguruko eztabaida sustatzea, bai eta desberdintasunak erreproduzitzen dituzten teoria, ikuspegi, politika eta praktiken problematizazioaren ingurukoa ere.
- Haien ondorioen eta gomendioen bidez, politika publikoetan eragin handiagoa izango duten ikerketak eta azterlanak egitea, bai EAEko politika publikoetan bai lan egiten dugun lurraldeetako politiketan.
 - ↳ Gure lanaren ikuspegiak partekatzen dituzten subjektu soziopolitikoaren politika publikoko eskaerak sostengatuko dituzten azterlanak egitea.
 - ↳ Aholkularitza eskaintzea erakunde publikoei, garapenari, nazioarteko lankidetzari eta politiken koherentziari lotutako gaietan.
 - ↳ Politika publikoaren ebaluazio prozesuetan parte hartzea.
- Gizarte eragileen eraldaketa prozesuak bultzatzea (ikerketaren, prestakuntzaren eta akonpainamenduaren bidez), ikerketa urratsak praktikan jarri eta aldi berean gai berrien iturri izango direnak.
 - ↳ Teoria sorkuntza lotzea prozesuen eta subjektuen akonpainamenduari.
 - ↳ Ikerketa parte-hartzaileak garatzea, subjektu soziopolitiko garrantzitsuekin.
 - ↳ Proiektuak eta programak aurkeztea gizarte eraldaketako eragileekin batera, bai gure ingurukoak eta beste herrialde batzuetakoak.
- **SAREAK ETA ALIANTZAK:** sektoreko beste erakunde batzuekin artikulatzeko guneak sustatzea, bai eta Hegoak lankide dituen subjektu kritikoak ordezkatzeko dituzten beste antolakuntza eta kolektibo batzuekin ere.
 - ↳ Aliantza estrategikoak identifikatzea eta ezartzea erakunde gakoekin eta eragin nahi den zirkuluetako (arloak eta tematikak) erreferenteekin.
 - ↳ Eragin politikorako nazioarteko gune garrantzitsuak identifikatzea eta horietan parte hartzea.
 - ↳ Baterako gogoeta sustatzea estrategiei eta eragiteko ekintzei buruz.
 - ↳ Parte-hartzearen jarraipena egitea eta lortutako emaitzak eta inpaktuak ebaluatzea.
- **KOMUNIKAZIOA.** Hegoaren Komunikazio Plana egitea, eta horretarako behar diren tresnak berritzea eta zabaltzea.

4. helburu estrategikoa:

Aurrera egitea kanpo proiektzioan eta nazioartekotzean

Lehentasunezko ekintzak 4. helburu estrategikoan:

NAZIOARTEKOTZEA

- Hegoaren nazioartekotze politika egitea, akordio posibleetarako irizpideak eta ekintzarako orientazioak definituko dituena.
 - ↳ Hitzarmenak egitea Europako, Latinoamerikako eta beste kontinente batzuetako unibertsitate eta zentroekin, eta gaur egungoak sendotzea, ekintza zehatzak egiteko (tokiko eragileen prestakuntza, tituluen baterako eskaintza, doktore tesien zuzendaritza partekatua, irakasle eta ikasle trukea, landa ikerketa egitea eta nazioarteko ikerketetan parte hartzea, baterako argitalpenak, presentzia sareetan...).
 - ↳ Prestakuntza eskaintzea Europako eta Latinoamerikako beste institutu eta unibertsitate batzuekin batera.
 - ↳ Partzuergoak sortzea, baterako proiektuak kudeatzeko Europako eta Latinoamerikako beste institutu eta unibertsitate batzuekin batera.

SAREAK ETA ALIANTZAK

- Unibertsitatearen eta gizarte mugimenduen, sareen, GGKEen... artean beste harreman modu bat sustatuko duten prozesuak eta aliantzak bultzatzea. Harremana izan dugun kolektibo eta erakundeei buruzko informazioa sistematizatzea, loturen estrategia bat landu ahal izateko.
- Ikertaldeetan eta ikerketa sareetan parte hartzea handitzea, Espainiako Estatuko eta beste herrialde batzuetako ikertzaileekin batera.
 - ↳ Zehazki, hartu-emana estutzea EADirekin eta gehiago parte hartzea haren batzar eta jardueretan, bai eta gure ikerlerroen antzekoak dituzten haren ikertaldeetan ere.

IKERKETAREN ETA ARGITALPENEN KANPO PROIEKZIOA

- Hegoaren argitalpen politika eta estrategia eguneratzea, irizpideak zehaztuta (formatua, publiko hartzailea, hizkuntzak, egileak erakartzea, etab.).
 - ↳ Gure argitalpenen inpaktua aztertzea ebaluazio irizpideen bidez (gizarte eragina, eragin akademikoa, deskargak argitalpenen webgunean...), azterlan konparatibo bat eginez (edukia, formatua) arrakasta eta erregularatasuna duten beste erakunde batzuen argitalpenekin alderatuta.
 - ↳ Hobetzeko gomendioak sartzea (hobekuntza kalitatean, aitortzan, hedapenean...) argitalpen politika eguneratu batean.
- **KOMUNIKAZIOA.** Hegoaren jarduerak, ikerketak, argitalpenak, buletinak eta, oro har, baliabideak eta zerbitzuak ingurune hurbilean eta nazioartean sistematikoki hedatzeko estrategia bat diseinatzea, publiko akademiko eta sozial zabalago batengana iristeko.

- ↳ Hegoaren irudi korporatiboa eta weba berritzea, baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua eskuratzea errazteko, informazio hirueleduna bermatuta (euskara, gaztelania eta ingelesa).
 - ↳ Hegoaren presentzia bultzatzea sare sozialetan, eta ikerketak eta beste jarduera batzuk zabaltzea baliabide horietan.
 - ↳ Hegoako irakasle-ikertzaileen lana eta argitalpenak ikusaraztea, hainbat bide erabilita: webgunea (profilak eguneratzea eta zabaltzea, etab.), sare sozial akademikoak (ResearchGate, Academia.edu...), biltegi instituzionalak, sozializazio eta eztabaida guneak, eta hedabideak.
 - ↳ Hegoak lan egiten duen subjektu kritikoak ordezkatzeko dituzten erakundeen lotura sustatzea, landutako ikerketen eragina zabaltzeko eta bilatzeko estrategien eta baterako ekintzen planifikazioan.
- **EUSKARA:** publiko euskaldunarentzako Hegoaren baliabideak eta zerbitzuak handitzea.
 - ↳ Euskarak webean presentzia parekidea izan dezan bermatzea.
 - ↳ Hegoak Zabalduz sendotzea, haren finantzaketa bermatuz eta zabalkundea sustatuz, eta euskarazko beste argitalpen batzuk bultzatzea, proiektuetan sartuta material digitalak euskarara itzultzeko kontzeptuak, batez ere gazteei zuzendutakoak: buletin digitalak, prestakuntza eskuliburuak, hezkuntza argitalpenak...
 - ↳ Elebitasuna bermatzea Hegoaren kanpo komunikazioan, eta euskararen erabilera handitzea barne komunikazioan.
 - Gehiago parte hartzea nazioarteko argitalpenetan, bai liburu kolektiboetan bai aldizkari akademikoetan.
 - ↳ Lanak inpaktuko aldizkarietan eta argitaletxeetan argitaratzeko esperientziak sustatzea, partekatzea eta sistematizatzea.
 - ↳ Ingelesera edo frantsesera itzultzea eginiko lan/argitalpen batzuk.

5. helburu estrategikoa:

Pertsonen eta taldeen gaitasunak indartzea, eta Hegoarekiko pertsonen lotura erraztea

Lehentasunezko ekintzak 5. helburu estrategikoan:

BERRIKUNTZA ETA GAITASUNAK INDARTZEA

- Berrikuntzarako guneak sortzea, arazoak eta proposamenak aztertzeko uneekin, bai eta lanean sortzaileagoak izango diren estrategiak saiatzeko ere.
 - ↳ Beste jardun eremu batzuk planifikatzea epe luzera.
 - ↳ Prozesuen ebaluazioak sozializatzea eta ondorioak ateratzea.
- Etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza sustatzea.
 - ↳ Prestakuntza helburuak zehaztea, lanbide profilen arabera.
 - ↳ Interes komunekoa gaiei buruzko eztabaida saioak erraztea; zehazki, garapen eta lankidetzaren politika publikoei buruzkoak.
 - ↳ **SAREAK ETA ALIANTZAK**: elkartzeko, ikasteko eta lan egiteko kanpo guneetan parte hartzea (kide garen sareetako lantaldeak, jardunaldiak, mintegiak...).
- Atxikitako irakasle-ikertzaileen inplikazioa hobetzea Hegoaren lan prozesu eta eremuetan.
 - ↳ Irakasle-ikertzaileek barne kudeaketa prozesuetan eta mekanismoetan duten parte hartzeari eta konpromisoari buruzko gogoeta dinamizatzea.
 - ↳ Irakasle-ikertzaileen parte hartzea sustatzeko mekanismoak sortzea (gogoeta prozesutik sortutako gomendioak).
- Abian jartzea lan esperientziak talde ez-patriarkaletan,
 - ↳ Rol eta zeregin banaketarekin.
 - ↳ Ezagutza (espezifikotasunak, lorpenak, zailtasunak...) eta berrelikadura sustatuko dituztenak lan arloen artean.
 - ↳ Erantzukizuna utziko dutenak bai irakasle-ikertzaileengan bai plantillarengan.

HEGOAREKIKO PERTSONEN LOTURA ERRAZTEA

- Irakasle-ikertzaileei laguntzea beren interes tematikoko profiei lotutako jardueretara sartzen, duten denboraren arabera: pixkanaka sartzea masterren irakaskuntza eskaintzan, ikerketa edo lankidetzaren proiektuen lan batzordeak, nazioarteko mintegiak, Hegoak lan egiten duen beste herrialde batzuetako unibertsitate irakasleekiko harremanak, etab.
- Protokolo bat sortzea, harrera egiteko ikertzaile bisitariei eta doktorego aurreko eta ondoko bekadunei.

- Prestakuntzan dauden ikertzaileen, doktorego programako ikasleen eta gure masterretako ikasleen parte hartzea handitzea Hegoan.
 - ↳ Ikasleen arteko informazio trukea erraztea, bai eta tesien eta abian dauden edo amaitutako ikerketen sozializazioa ere, foroen, mintegien, argitalpenen... bitartez.
 - ↳ Prestakuntzan dauden ikertzaileak eta doktoregoko ikasleak ikertaldeetan eta ikerlerro eta jardueretan sar daitezen ahalbidetzea.
 - ↳ Graduondoko ikasleen eta Hegoaren arteko loturak iraun dezan lortzea, behin haien ikasketak amaituta (MALen eta tesien edukia bideratzea Hegoaren ikerlerroetara; praktikak Hegoan edo haren erakunde aliatuetan; ikasle egresatuen sare soziala).
 - ↳ Bideak ezartzea Hegoan defendatutako MALen eta doktorego tesien sintesiak Hegoaren Lan Koaderno eta Buletin Elektronikoko formatuan argitaratu daitezen.
 - ↳ **KOMUNIKAZIOA**: ikasleekiko komunikazio interaktiboa sustatzea, bai eta haien artekoa ere, sare sozialen bidez.

- Unibertitate ikasleak lehenestea gure hezkuntza proiektu eta ekintzen populazio subjektu gisa, eta ikasle horiek motibatzea, gizarte eraldaketako prozesuetan parte har dezaten.

6. helburu estrategikoa:

Hegoaren konpromiso feministan sakontzea, misio instituzionala hobeto

Lehentasunezko ekintzak 6. helburu estrategikoan:

ERANTZUKIZUNAK ETA LAN KARGAK BIRBANATZEA

- Parte hartze orekatu bat sustatzea, generoari eta adinari dagokienez, Hegoaren esparru guztietako erantzukizun postuetan.

KONPROMISOA MARTXAN DAUDEN PROZESUEKIN

- Gatazken eraldaketa lantzea genero ikuspegitik, zaintzaren etika feminista batetik, aurrekontua erabiliz kanpoko akonpainamendurako.
- Generoaren Barne Taldeak egituran duen rola indartzea, kideak gehiago txandakatuz eta haren osaera zabalduz, Zuzendaritza Kontseiluko kideak ere barne hartuta.
- Irakasle-ikertzaileak bultzatzea Ekitatearen aldeko Antolakuntzaren Aldaketa Prozesuetan (COPEQ) parte hartzera.
- Genero diagnostikoa eguneratzea erakundeetan, antolakuntza analisirako adierazle gakoak identifikatuz eta aurkikuntzak ikusaraziz, baterako gogoetarako oinarri gisa.
- 2021-2024 Ekitatearen aldeko Antolakuntzaren Aldaketa Plana (COPEQ) lantzea, Hegoaren Plan Estrategikoaren helburuekin lerrokatuta eta erakunde osoa inplikaturik haren definizioan.

7. helburu estrategikoa: Finantzaketa dibertsifikatzea

Lehentasunezko ekintzak 7. helburu estrategikoan:

- Parte har daitezkeen deialdien mapa egitea, figura juridikoaren arabera (Hegoa Elkartea, Hegoa Institutua, ikertaldeak).
- **SAREAK ETA ALIANTZAK:**
 - ↳ Baterako ekintzak planifika daitezkeen Europako unibertsitate institutuak edo sailak eta gizarte erakundeak identifikatzea, gaien arabera.
 - ↳ Aliantzak sortzea beste unibertsitate batzuetako irakasleekin eta ikertaldeekin, haiek gure proiektuetan sar daitezen eta gu haien proiektuetan.
- Proiektuak eta hitzarmenak aurkeztea AECID deialdietara.
- Proiektuak aurkeztea Europar Batasunaren deialdietara.
- Taldeek eta irakasle-ikertzaileek proiektuak aurkeztea ikerketako deialdi lehiakorretara (MICINN, EB, etab.).
- Aholku zerbitzuak dibertsifikatzea, erakunde berriak sartuz eta aldi behin ebaluazioak eginez.